


Azterketa, kontrol eta froga idatzien egokitzapena



Entzumen gaitasuneko
talde espezifikoa
Madril 2016

Zer dela eta egokitu idatzizko frogak?

- *Maiz, ekintza baten zailtasunak azalpenarekin zerikusia dauka. **Testua galderei egokitzea, egokitutako enuntziatuak aurkeztea, e. a. ulermena ahalbidetzeko bidea izan daiteke eta erantzuna erraztu dezake.***



- **Adibidea:** Gorra diren zenbait ikasleek arazoak izan ditzakete ondoko azalpen honen ulermenarekin:
- ***“Defini ezazu eremu semantikoa eta atxikitutako testuan landare hitzaren eremu semantikoa aurki ezazu”.***
- ***Hau bezalako aurkezpenean: “Zer da eremu semantiko bat?”. Ondoko testuan landareei buruzko eremu semantiko bat dago. Bilatu eta kopiatu testuan eremu semantiko horrekin lotura duten hitzak” ulertzeko errazagoa izan daiteke eta beraz, erantzuteko.***

Zure helburu nagusia zenbait edukiren inguruko ikasleen ezagupen maila balioztatzea bada, espero dezagun “errezeta” eta adibide hauek baliagarriak izatea.

Zenbait “errezeta” erraz idatzizko frogak egokitzeko:

- ***Gaiak aukera ematen badu, hobe da galdera zuzenak, zehatzak eta errazak erabiltzea eta horrela erantzun laburrak lortuko ditugu.***

Perpau hauetan zein da hizkuntzaren funtzio nagusiena?

- Abenduaren 22an oporrak ematen dizkigute:.....
- 22an oporrak ditugu!.....
- Esan diezadakezu noiz ematen dizkiguten oporrak?.....
- Kaixo, egun on!.....

- ***Test moduko galderak, erantzuteko zenbait aukerekin eta bakarra da zuzena:***

-Non jaio zen filosofia?

- A. Espainian.**
- B. Grezian.**
- C. Txinan.**

-Noiz jaio zen filosofia?

- A. K.o. IV. mendean**
- B. K.a. IV. mendean**
- C. K.a. VI. mendean.**

-Zer adierazi nahi du filosofia hitzak?

- A. Jakinduriarekiko maitasuna, interesa.**
- B. Mitoen kontrako borroka.**
- C. Arrazoia, ideia.**

Galdera bakoitzean hiru erantzun daude. Bat bakarrik da ona eta ongi dagoena. X batekin erantzun zuzena marka ezazu.

- ***Osatzeko perpausak:***

Idatzi falta diren hitzak:

- Ilargiak.....egiten du Lurraren inguruan eta egun behar du egiteko.
- Bisisurte batek egun ditu.
- dirdira asko egiten dute eta zeruan oso azkar mugitzen dira.
- Pertsona batek espazioan bidaiatzen badu, persona hori da.
- Galaxia handi eta dizdiratsuena da.

- ***Egia edo gezurra markatzeko esaldiak:***

Irakurri esaldi hauek. Idatzi egia (E) ala gezurra (G) den.

Eguzkia satelite handi bat da

Lurra planeta bat da

Pluton planeta nano bat da

Galaxia bat izotz masa bat da ...

Gure galaxiak Andromeda du izena ...

“Esne Bideak” “ izarren bidea” adierazi nahi du ...

Ilargia Lurraren satelitea da ...


Kometa bat izar txiki bat da ...

Eguzki Sistematan 5 planeta handi daude ...

Eguzkiak Lurraren inguruan bira ematen du (itzuliak eman)...

- **Erlazionatzeko zutabeak:**

. Zer da Venus? Zer da Esne Bidea? Aurkitu eskubiko zutabeen zer den ezkerreko zutabeko hitz bakoitza. Erabili lerro bat adibidean bezala.

- | | |
|--------------|-------------------|
| . Ilargia | . Planeta nanoa. |
| . Eguzkia | . Galaxia. |
| . Pluton | . Satelitea. |
| . Esne Bidea | . Izarra. |
| . Venus | . Planeta handia. |
- 

- ***Akatsak aurkitu eta zuzendu:***

Perpaus bakoitzean akats bat dago, markatu zein den eta esaldia berridatzi akatsik gabe.

- Planeta bat galaxia bat baino handiagoa da.
- Planeta batek satelite baten inguruan bira ematen du.
- Lurra izar bat da.
- Esne Bidea gure galaxiako handiena da.
- Kometak planeta nanoak dira.

- ***Marrazkiak egiteko aukera eman:***

Hizkuntzazkoak ez diren hiru zeinu marraztu eta bere esanahia idatzi.

- ***Edo marrazki edo argazkiak erabili bere gainean idatz dezaten:***

Marrazkian gorra diren bi persona agertzen dira Zeinuen Hizkuntzan hitz egiten. Marrazki honetako komunikazio elementuen izenak idatz itzazu.



- **Eta noski,
egokitutako
testuak erabil
ditzakezu edo
testuak egokitu
galdera eta
enuntziatuekin...**

- Testuak nola egokitu behar diren jakiteko, begira dezakezu: ...

Egokitutako enuntziatu baten adibidea:

- Erreklamazio bat idatzi baino lehen, nire buruari zer hiru galdera egin behar dizkiot?



- Ohikoa da, erreklamazio bat idatzi baino lehen hiru galdera egitea: zein dira nire buruari egin behar dizkiodan hiru galderak, zer hiru gauza pentsatu behar ditut erreklamazio bat idatzi baino lehen?

Egokitutako enuntziatu baten adibidea:

- Zein da “*Fortunata y Jacinta*” liburuaren egilea? Egizu bere argudioaren sinopsi labur bat.



- Nork idatzi zuen “*Fortunata y Jacinta*”? Adierazi modu erraz batean zer gertatzen den liburuan.